

## LARRIALDIETARAKO TELEFONO ZERBITZUA

" URTEKO EGUN GUZTIETAN ETA EGUNEKO 24 ORDUETAN ERANTZUNGO DIZUGU "

Zer da 

### LARRIALDIETARAKO TELEFONO ZERBITZUA?



Telefono bidezko zaintza-zerbitzua da, funtsean bakarrik bizi diren edo egunaren zati handi bat lagunik gabe ematen duten pertsonentzat pentsatuta dagoena.


Zerbitzu honen helburua egoera sozio-sanitario arriskugarrietan etxean bertan eta ahalik eta azkarren erantzutea da.

Segurtasuna eta lasaitasuna eskainiko dizkizu. Antsietate eta bakardadesentsazioak txikitzen eta bizi-kalitate hobea izaten ere lagunduko dizu.



Non eska dezakezu? 

Etxean **Larrialdietarako Telefono Zerbitzua** jarri nahi baduzu, jar zaitез harremanetan zure udaletxeko Oinarrizko **Gizarte Zerbitzuekin** edo **Gizarte Ongizaterako Foru Institutuko Informazio Zerbitzuarekin** (Aldundia, 13 etxabea. Tel.: 945 15 10 15). Han, baldintza zehatzen eta egin beharreko tramiteen berri emango dizute.



## Zertan oinarritzen da?

Etxean telefono-ekipo berezi bat jarriko dizute. Ekipo horrek kolore gorriko alarma-botoi bat dauka eta, gainera, elementu independente batzuk ere baditu, hain zuzen, zintzilikario, eskumuturreko erloju edo kartutxera itxurako gailuak alarmatarako ere balio duen botoiarekin. Erabiltzaileak ekipo hori aldean eraman behar du beti bere etxean dagoen bitartean.

Larrialdiren bat suertatuz gero, erortzea, ustekabeko istripu bat edo bat-bateko ondoeza esate baterako, botoia sakatu (telefonoan bertan dagoen botoi gorria zein zintzilikario, eskumuturreko erloju edo kartutxera gisa daramazuna) eta laguntza eskatzen arituko zara. Dei hori SOS DEIAKera doa eta hor gau eta egun dagoen aditu-taldeak segituan detektatuko du laguntza-eskea nondik datorren, hau da, nork deitu duen eta nondik.

Telefono-aparatutik hurbil bazaude, SOS DEIAKeko pertsona adituei entzun eta beraiekin hitz egin ahal izango duzu. Telefono-sentsoretik urrun bazaude eta mugitzerik ez baduzu, ez arduratu; minutu gutxitan erantzungo dizute.

Zerbitzu honek zure etxean bakarrik egoteagatik ezbeharren bat gertatzeko beldurrik gabe bizi izateko aukera ematen dizu.

### ***Azken finean, zure lasaitasuna eta segurtasuna handitu egingo dira.***

Gainera, nahi baduzu, telefono honetan senide edo lagunak hainbat telefono-zenbaki ere programa daitezke, komunikazioa errazteko.



## SOS DEIAKI LARRIALDI DEIA EGITEKO

### **EZ AHAZTU INOIZ ERLOJU, ESKUMUTURREKO EDO MEDAILOI ITXURAKO GAILUA ALDEAN ERAMATEA ETXEAN ZAUDEN BITARTEAN.**

- Ezbeharren bat gertatzen bazaizu edo gaizki bazaude, sakatu telefonoko **botoi gorria** edo zurekin daramazun zintzilikario, eskumuturreko erloju edo kartutxerako botoia eta itxaron.
- SOS DEIAK Larrialdietarako Zerbitzuak laguntza-deia jaso eta nondik datorren identifikatuko du. Hau da, berehala jakingo du nork deitu duen eta nondik.
- Telefonoaren sentsoretik hurbil bazaude, SOS DEIAK zerbitzuko profesionaleri entzun ahal izango diezu. Konta iezaiezu, ahots normalaz, zer gertatu zaizun eta ondoezik bazaude, zer sentitzen duzun. Gezurra badirudi ere, aurikularra hartu gabe entzungo dizute.

- Hitz egiteko arazoak badituzu edo telefono-aparatutik urrun bazaude, ez larritu, SOS DEIAKen dauden pertsonak zure laguntza-deia jaso eta identifikatu egingo dute eta.
- Ez arduratu. Minutu batzuetan laguntzera joango zaizkizu.
- Labur esanda, funtzionamendu oso erraza du. Botoi bat SAKATU eta ERANTZUN egingo dizute.

## ZURE SENIDE EDO LAGUN BATEKIN HITZ EGITEKO

### **(deia aurretik programatuta izanda)**

- Zure telefonoaren aurikularra jaso, programatuta dagoen deiaren botoia sakatu eta zure senide eta/edo lagunarekin jarriko zara harremanetan.
- Hitz egin ezazu ahots normalaz. Senideak ederto entzungo dizu.